

HIZTEGI BATUA¹

Miren AZKARATE

Euskaltzaindian sartu zela 50 urte direla-eta Federiko Krutwigi omenaldi gisa eskaini nahi zitzaion liburuan parte hartzeko gonbita egin zidatenean, Hiztegi Batuari buruzko gogoeta egitea gai egokia izan zitekeela pentsatu nuen. Orain dela 40 urte euskara batuaren beharra ikusirik, Leizarragaren eredu defendatu zuen euskaltzainak hiztegi kontuetan ere proposamen zehatzak egin zituen. Belaunaldi gazteagoak hartu du Euskaltzaindian azken urteetan batasunaren zuzia, hiztegiarena barne. Hiztegiaren zubiak batzen gaitu, besteak beste, Federiko Krutwig eta biok. Horregatik, bere ideiak eta nireak beti bat ez datozela jakin arren, eta Hiztegi Batua hark nahiko lukeen bideetatik ez badaramagu ere, Euskaltzaindia sortu zenetik gaur arte euskal hiztegia osatzeko eta eguneratzeko egin diren proposamenen kronikatxoa egin nahi dut, euskaltzainen dekanuari opari xume modura eskaintzeko.

Sarritan entzun izan diot aita Villasanteri, beste edozein Akademiaren kasuan bezala, Euskaltzaindiaren egitekorik behineneoak Gramatika eta Hiztegia zirela. Horregatik sortu zituen Euskaltzaindiak Gramatika batzordea eta Hiztegegintza batzordea. Baina euskal hiztegiari buruzko kezka ez da Euskaltzaindiarena bakarrik; hiztegegintza arlo joria izan da gure artean, eta norbait bereziki aipatzekotan, Euskaltzaindia sortu baino 200 urte lehenago euskal gramatika eta hiztegia landu eta argitaratu zituen aita Manuel Larramendi ekarriko nuke gogora.

Zerbait izendatzeko hitzak falta direnean, bi bide izaten dituzte oro har hizkuntzek: mailegunea edo hitz berria sortzearena; hau da, beste hizkuntza

¹ Lan honetan zehar aipatuko ditudan hitzaldi edo artikulua batasunaren aurrekoak izanik, garai hartako grafian daude idatziak; hala ere, batasuneko arauetara moldatu ditut aipuok.

bateko hitza hartu eta bereganatu, edo hizkuntzak berak dituen bidez baliatuz (eratorpenaz eta hitz elkarketaz) hitz berria sortu. Bi joera horien arteko tirabira agertuko zaigu ondoko lerroetan, euskal gramatikarien iritzietan.

Bestalde, lexikoaren auzietan, ohikoa da lexiko arruntaren eta lexiko berezitu edo terminologiaren arteko bereizkuntza. Ahoz eta idatziz urte luzetan erabili diren hitzak, hizkuntzan ondo finkatuak daudenak, izaten dira lexiko-ondarea osatzen dutenak (gehienak lexiko arruntari, edozein hiztunek egunero erabiltzen duen hitz-multzoari, dagozkionak). Terminologia, oster,

“Langintza, jolasgintza, jakintza ta gizonaren beste ekinbide orok dute beren hiztegi berarizkoa, ekinbide bakoitz horretan sartu ta ohitutakoak baino ondo ezagutzen ez dutena”

bezala defini dezakegu, Villasanteren (1963:305) definizioa geure eginez². Hala ere, askotan, ez da erraza izaten hitz jakin bat “terminoa” den ala ez zehaztea, edozein sailkapen edo taxonomia-ahalegin egiten denean bezalaxe, hemen ere mugak ez baitira argiak.

Orain arte esanak gogoan izanik, bi arlo nagusi horiek –eguneroko hitzak / terminoak, hitz berezituak– bereizi aztertuko ditut, euskaltzainek baterako eta besterako egin dituzten proposamenak zein izan diren zehazten ahalegin-duz.

1. LEXIKO ARRUNTA

Euskaltzaindia sortu zenean, mende hasieran, Arana Goirik ezarritako purismoa zen nagusi euskara auzietan: jatorri arrotzeko hitz guztiak baztertu, baita aspaldiko mendeetatik euskaran sartuak zeudenak ere (latinak eman zizkigun guztiak berdin), eta horien ordeztu euskal ordain jatorrak, “garbiak” sortu eta hedatzeko ahaleginean ziharduten hainbat idazlek.

Horren aurrean, garaiko “giro ofizial” hartan, bi modutako jarrerak ikus ditzakegu euskaltzainen artean. Batzuek onartzen zuten filosofia hura (Eleizalde lekuko), baina beste askok gehigikeria haietatik urrunduki nahi izan zuten, eta hiztegi kontuak beste irizpide batzuen arabera ebatzi. Hasieratik euskaltzainburu izan zen Resurrección M^a Azkuek argi azaldu zuen bere *Diccionario vasco-español-francés* lan erraldoian zein zen bere jarrera, litera

² Terminologiaz informazio gehiago nahi duenak, M.T. Cabré (1992): *La terminología*. Barcelona: Empúries, kontsulta dezake.

turan tradizioa zuten *zeru*, *eleiza*, *aingeru* etab. sartu eta sortu berriak ziren *txadon*, *donoki* eta beste baztertu zituenean:

No he querido exponer palabras nuevas de nadie, a pesar de haber mucha necesidad: pues todavía no hay autoridad para implantarlas (1905-1906: XVIII).

Nolanahi ere, ia hasieratik beretik ageri da Euskaltzaindikoko agirietan, euskaltzainen batzar-txostenetan, hiztegi-auzien gaineko kezka. Jakingarriak dira benetan euskaltzain haien proposamenak eta adierazpenak; gaur Hiztegi Batuko batzordeak (1994) darabiltzanekin alderatuz, ordutik hona funtsezko irizpideetan etenik ez dela egon ikusi ahal izango dugu, askok bestela uste izan arren.

Bi multzo nagusitan banatuko ditut gerra aurreko artikuluetan ikutzen diren gaiak, nahiz azken batean modu batera zein bestera, gaurko ikuspegitik, guztiek euskal lexiko "batuaz", euskara estandarreko lexikoaz, jardun:

a) Maileguen auzia, garaiko "garbizaletasun"aren giroan maileguekin nolako jokabidea hartu behar zen.

b) Euskalkietako lexikotik abiatuz, batasunerako irizpideak

Urte haietako txostenak eta gerra ondorengoak irakurriaz, bestalde, ohartzen gara bi euskaltzain nabarmentzen direla euskal hiztegiaren gaineko arduran: Altube (nahiz sintaxiaz eta batez ere hitzen ordenaz egindako lanengatik ezagutzen dugun gehienbat) eta Villasante, biak ere iritzi bereko hiztegi kontuetan.

A) Maileguen auzia

Gerra aurreko giroan, mailegu zaharrenak ere euskaratik baztertu nahi zirenean, eta gerra ondorenean ere, askotan ageri den gaia da maileguena. Berehala ikusten da bi maila behintzat bereizi beharra:

- hizkuntzan eta literaturan tradizioa dutenak, hedatuak direnak
 - euskara XX. mendeko beharretara egokitzeko beharko direnak
- guztiz onargarriak lehen sailekoak (hala defendatu zuen sutsuki Altubek), zenbait irizpideren arabera mugatu beharrekoak (onartzeko edo baztertzeko) bigarrenak. Hasieratik ikusten dira desberdintasunak bigarren multzo honetako maileguei dagokienez, Altuberen (1920a) jarrera eskuzabalagoaren ondoan, Azkueren (1920c) estuagoa. Altube, gainera, ahalegintzen da irizpide-sorta bat ematen, noiz izan daitezkeen onargarri maileguak, eta noiz baztertzeko, noiz hobetsi hitz berriak sortzea eta noiz izan daitezkeen egoki zaharkitutako hitzak kontzeptu berrietarako hartzea, nahiz irizpide horietako batzuek zehaztasun handiegirik ez izan (hala nola c) eta f) puntuetakoek).

Altubek (1920a, 1933a) argi ikusten du Euskaltzaindiak ezin duela maileguekin muturreko jokabiderik hartu: ez erdal hitz guztiak baztertu eta horien ordainak antzinako hitzetan edo asmatu berrietan aurkitu, ezta euskaldun gehienek ahotan zerabiltzaten “erdara mordoiloizko” hitz oro onartu ere. Erdaratiko hitzetatik, bere ustez, hauek dira euskal hiztegiratu beharko genituzkeenak:

“Euskal Herrian, zabal zabal antzinatik eta ondo lurra hartuta bizi diren, eta euskaldun jatorrentzat esan-erraz diren oro” (1920a: 47 or.)

“Deben ser aceptadas las voces de origen extraño, cuando han sido incorporadas al léxico corriente de los euskaldunes, y especialmente a los de aquellos pueblos o regiones donde mejor se habla el euskera” (1933a: 309 or.)

Izan ere:

Lo ilegítimo, en todo género de literatura, es (queremos recalcar bien este concepto) la *sustitución* o mejor dicho, la *eliminación* de palabras *difundidas* y *arraigadas*, sin más razón que la de su origen” (1933a: 335).

Are gogorrago mintzatu zen euskaltzain oso egin zutenean irakurritako hitzaldian (Altube 1920b). Hizkuntza guztiak hartzen dituztela maileguak erakutsi nahi izan zuen, eta hala egin beharko lukeela euskarak ere, bizirik iraun nahi badu behintzat:

“Euskera garbija edo bapez” zaleak, beraz, euskaldunen artean aspaldion sartzen ari diran kezka atzerakari horregaz, euskeriaren bizitzia-ri berari, uste-uste barik, kalterik haundiena ez ete-deutse gero egiten!” (32).

Idea bera azpimarratzen du urte batzuk beranduago (1933a, 1936), berriro ere argudiotzat orduko hizkuntzalari ezagunen, etxeko eta kanpokoan, lekukotza (Larrasquet, Lafitte, Gavel, Campion, Meillet, Hovelacque, Vendryes, Gregoire...) eta inguruko hizkuntzen eredia hartuaz. Alemanak eta ingelesak badituzte hitz berriak sortzeko bideak eta hala ere inolako lotsarik gabe erabiltzen dituzte beren literaturan jatorri erromantzeko hitz ugari. Erabat zilegi da, beraz, beste hizkuntza batzuetatik hartutako hitzak euskaraz erabiltzea, batez ere maileguok aspaldi sartuak ditugunean. *Eliza, zeru, meza, apostolu, martiri, mundu, itxura, kate, musika, kontu, zapata, mediku, botika, erregu* eta beste hitz asko baztertu nahi hori ez da bidezkoa; hitzok,

“presentan todos los títulos de legitimidad para ser usados tanto en el lenguaje hablado como literario. Es más; dentro de dichas normas, “lo incorrecto” es tratar de “sustituir” en la literatura a esos elementos que

viven incrustados en el alma de nuestro pueblo; esto sería proceder en contra de las prácticas universalmente admitidas; sería colocarle a nuestro pueblo en condiciones de inferioridad con respecto a todos los demás de la tierra” (1936: 95).

Hitz horiek guztiak onartuta ere, nahikoa lan izango dugu euskarak gaur behar dituen hitz guztiak osatzen. Bestela jokatzeara, euskara hondamendirara eramatea da:

“El euskera, ante el trascendental hecho de su pobreza lexical, *real o actual*, se encuentra en situación muy desventajosa para luchar con los idiomas que le disputan el terreno; en esta situación, *renunciar* (para *sustituir* con voces impopulares, como quieren muchos euskalzales) a aquella parte del léxico de origen erdérico legitimado por el uso, es ofrecer otra ventaja al enemigo; es llevar al euskera al suicidio” (1936: 98).

“Es imperdonable, por ejemplo, que para expresar conceptos tan sencillos y tan populares como:

= Kaletik elizara mila metro

= Apostolua, pekatuak parkatzen

= Altara nagosiyen meza santua esateko ordua jo dau erlojuak... (recurren al *purismo* en uso y escriban):

= Txaidetik txadonera anei neurkin

= Beldua obenak azkesten

= Ondi nagosiyen jaupa deuna esateko gabeukiya jo dau gabeukatza...

¿Pero hay pueblo en el mundo que pueda soportar estas exageraciones?

¿Es posible que haya vascos que cierren tan obstinadamente los ojos de su inteligencia para no ver los perjuicios que ha ocasionado y ocasiona el uso de esta clase de literatura durante tantos años de insistentes experiencias?” (1936: 107)

Argi asko adierazi zuen, beraz, Altubek zein jarrera zuen maileguren auzian: tradizioidunak, hedatuak, geureak dira eta ez da zilegi horiek ordezkatzeko ahalegina; horixe bera da, azken batean, aurrerago ikusiko dugun 1959ko adierazpenean Euskaltzaindiak bere egin zuena. Baina Altubek (1920a) ez ditu mailegu guztiak maila berean jartzen. Bereziki kontuan hartzekoak dira haren ustez honako hauek:

a) Euskara antza hartu dutenak, hots: euskal lege fonologikoen arabera egokitu direnak, euskarara pasatzean esanahi berri bat hartu dutenak, erdal hitzari euskal atzizkiren bat erantsirik sortuak (*tripaki, gerrate...*), edo erdal hitzari euskal hitza erantsiz sortu ditugunak (*tabakorri, pipontzi...*).

b) Toponimian eta Onomastikan bizi direnak: *torre* (Dorregarai, Torrealdei), *gaztelu* (Gaztelupe, Gaztelugaitz), *erreminta, errenta...*

c) "Hots egokizkoak", euskal belarrientzat hots egokiak dituztenak: *ezpata, kanpai, eskopeta...*

d) Atzerriko gauzenak, hau da, atzeritik datozen gauzak izendatzeko, atzeritik etorri zaizkigun maileguak: *pezeta, txelin, gitarra, gobernadore*, etab.

e) "Mundu guztikoak" direnak, hizkuntza gehienetan erabiltzen diren hitzak: *politika, musika, orkestra*³...

f) "Euskaldun lauen artekoak", herri lau edo apalaren aho eta belarrietan sarri-sarri ibili beharrekoak direnak: *lima, tomate, sardiña, tximini, zerra, eliza*, etab.

Baina, erdal oinarria izateaz gain, erdal atzizkia ere badutenak, baztertze-koak lirateke:

"baña *limadoria, peloterua, sardiñeria*, eta beste euroen antzeko, iruntsi-eziñezko, eta halan eta guztiz bere, egunero entzun ohi ditugun hitz asko, ez dogu uste inok ontzat hartu behar diran eretxirik izan leienik" (50).

Horien ordez, euskal atzizkiez baliatuz, *limatzaile, pelotazain, sardindun* etab. dira bultzatzekoak. Eta beste horrenbeste gertatzen da erdal hitzez osatutako hitz elkartuekin ere: *saka-kortxo, luz-elektrika* edo *kafekoletxe* baztertu egin behar dira euskal hiztegietatik. Hemen ere proposamenak bat datoz euskara batuko jokamoldeekin.

Sei kasu hauetako maileguak aztertuz, ikusten dugu ematen dituen adibide gehienak mailegu zaharrei dagozkiela, latinetik hartu eta euskal legeen arabera egokitu zirenak. Eta bigarren irizpide nagusia nazioartekotasuna da, inguruko hizkuntzetan ere erabiltzen diren maileguak dira errazen ontzat eman daitezkeenak. Hor ditugu, beraz, gaur Hiztegi Batuko batzordearen lanean oinarri-oinarrizko diren bi irizpide: tradizioa eta nazioartekotasuna.

³ Hain zuzen ere, inguruko hizkuntzetan zein forma duen azterturik, batasunerako *orquestra* gomendatuko da..

Hitz batean, Altuberen iritziz (1933b), lexiko arruntari dagokionez, herriak benetan erabiltzen dituen hitzak jaso behar dira, hau da:

a) euskal hitzei dagokienez, herri euskaldun gehienetan hedatuak daudenak

b) maileguei dagokienez, benetan hedatuak daudenak (bereziki euskal ordainak askoz hedadura gutxiago duenean)

Hala ere, hasieran esan bezala, aukeran izan dezakegu mailegua baztertu eta hitz berriak eratzeko euskarak dituen erregelen arabera, hitz berria sortzea. Hala egitea erabakitzen bada, lehenik eta behin ongi eratua izan beharko du hitz berriak, Altubek dioenez. Halakoen artean, ulerterrazak direnak sartzen dira lehenik (*betaurreko, gizamaila, goiargi...*) edo euskaldunen artean nahikoa zabaldu direnak (*batzoki, aberri, hauteskunde, idazki, etab.*). Erabilera eta hedadura ditugu, beraz, berriro ere gidari⁴.

Baina maileguaren eta hitz berriaren arteko erabaki behar horretan, Altubek (1936) nahiago du hitz berriak sortzea, ideia edo gauza berriak, euskaraz oraindik izenik ez dutenak, izendatzeko:

“el neologismo es útil cuando aporta al idioma un nuevo elemento de expresión y no, generalmente, en caso contrario” (110).

“Hemos dicho y repetimos, que si el neologismo es empleado para la SUSTITUCION de voces arraigadas en el pueblo, el resultado es, en la mayoría de los casos, perturbador y perjudicial para la salud del idioma; que el neologismo, en cambio, es beneficioso cuando crea palabras *que no tienen equivalente exacto* en el lenguaje popular, es decir, cuando *no modifican* a éste, sino cuando lo SUPERAN” (156)

Badago, beraz, irizpide garbi bat, berriro ere tradizioaren ildotik doana: tradizioko maileguak hartu (horien ordez hitz berriak sortzea baztertuz), tradizioz ez dagoen kasuetan, aukeran egongo litzateke mailegua hartzea nahiz hitz berria sortzea.

Antzinako hitzei dagokienez, berriz, hilda daudenekin edo herriren batean edo bestean hil-hurren daudenekin ere, hitz berrietarako gomendatzen duen jokabidearen antzekoa izan beharko genuke: esanahi ulerterrazekoak hartu lehenik, eta berpizte-ahaleginaren ondoren hedatu direnak.

Gerta daiteke, ordea, mailegu zaharraren ondoan sortu berria den hitza ere indarra hartu eta hedatua izatea. Halakoetan, biak gorde eta esanahi dife-

⁴ Euskera 1919-1920, I, 2, amaieran, eranskin modura, Hitz Berri edo Neologismoen zerrenda bat dator, nork sortuak diren edo zein euskalkitan erabiltzen diren zehaztuaz.

rentetarako bereiztearen aldeko ageri da Altube (1920a, 1933a, 1933b). Esate baterako, *gutun*, *liburu* eta *idazti* harturik, *liburu* 'libro' adieran erabili, *gutun* 'boletin' edo antzekoetarako, eta *idazti* 'tratado' adierazteko, gero erabat horrela erabili ez diren arren; edo *maixu* 'maestro' / *irakasle* 'instructor, profesor', *bake* 'paz' / *gentza* 'sosiego, placidez', etab. Handik mende erdira, Arantzazun egindako Biltzarrean, jokamolde horixe bera defendatu zuen Zatarainek (1968): bi hitz ditugunean, mailegua eta hitz sortu berria, biak hartu esanahia bereiziz.

Euskaltzaindiaren barruan guztiak ez ziren, baina, Altuberen iritzi bereko. Hor dago 1928ko urtarrilaren 26ko bileraren akta, euskal idazleek Euskaltzaindiari egindako eskaria jasotzen duena: maileguetara jo nahi ez dutenez, Euskaltzaindiak sortu edo bila ditzala euskal ordain jatorrak (*Euskera* XI,1: 49)

Azkue (1920c) ere Altube baino uzkurrago ageri da erdal hitzak euskal hiztegirako hartzean. Nazioartekoak direnak zalantzarik gabe hiztegiratuko lituzkeen arren, gainerakoak, baita herriaren ezpainetan bizi-bizirik daudenak ere, ez lituzke aintzakotzat hartuko, euskal ordain jatorrak dituztenak behintzat ez. Hartara, *pisu* baztertzearen alde azaltzen da, *azta* dagoenez, edo *liburu* hitzaren ordez *gutun* litzateke hartu beharrekoa; *txilin* erabili beharko genuke *kanpai*-ren ordez, etab. Baina euskal ordain jatorrik ez badago, zilegi da herriak darabilen erdal hitza hartzea.

Gerraren ondorengo tarte luzearen ondoren, 50eko hamarkadan Euskaltzaindikoko bileretan eta euskaltzainen txostenetan indar handiz ageri da berriz ere hiztegiaren auzia. Hasieran esan bezala, Villasante da gai honetaz sarri arduratu zena eta Altuberen bide beretik doana:

– ezin ditugu mailegu guztiaz ez baztertu, eta ez onetsi; erdibidea aurkitu behar da

“Hizkuntza literarioa beti da hizkera apainagoa eta landuagoa, herri arruntak erabiltzen duena baino. Herriak *antomobilla* esaten duela eta, beste gabe, hitz hori euskara literarioan sartzen badugu; *imprensa* esan beharrean, baserritar bati *inpentra* entzun diogula eta, dagoeneko hitz hori horrela idazten hasten bagara, zer egiten dugu?

Herriari jarraitu behar zaio, egia; baina zertan, nola eta noraino jakiteko, sena eta neurria behar dira” (Villasante 1956: 266)

– euskaldunok aspaldidanik erabiltzen ditugun hitzak, jatorria jatorri, guztiz jatorrak eta erabiltzekoak dira:

“Hitz arruntak, euskara bizian zabaldurik eta sustraiturik daudenak, baztertu nahi izan ditugu. Eta zer bekatu egin dute horiek?

Erdarazkoekin antza dutela, ez besterik. Baina gauzak ondo begiratu gero, ez da hori arrazoibidea. Nik nere biderei jarraitu behar diot, erderari begira egon gabe.

(...) Erderak esan dezala nahi duen bezala. Nik, nola esan behar dudan jakiteko, ez diot erderari begiratu behar. Euskarari bakarrik egin behar diot jaramon: euskaraz nola esaten, edo nola esan den, eta gure idazle onenek nola esan duten: horra euskararen iturri garbiak, horiei bai, horiei leial egoteko obligazioa daukat” (1959: 104-105).

Hala ere aitortzen du purismoak badituela bere alde onak, eta bat ere premiarik gabe erdal hitzak sartzen zituen euskara haren aurrean, Larramendiren euskara zainduagoaren aldeko ahaleginak mesedea baino ez diola ekarri hizkuntzari. Neurritik aterata, ordea, kaltegarri bihurtzen zaio.

– nazioartekoak diren maileguak guk ere onartu beharko genituzke

“sartaldeko herri eta hizkuntza guztietan zabaldurik eta onarturik dauden hitzak, guk ezetsi nahi izan ditugu. *Técnica, máquina, política, religión*: honelako hitzak nongo hizkuntzan (Okzidenteko kultur eskeran bizi direnetan behintzat) ez daude hartuak, eta ez hartzeaz zer egiten dugu, gure burua hil baizik?” (Villasante 1956: 265)

“Hizkuntza landu guztiek erabiltzen dituzten hitzak dira, eta haien antzera, guk ere badugu eskubidea, eta bai beharra ere, erabiltzeko. Bestela, beharreko diren gauzak ezin esateko estuasunean jartzen gaituzte. Gaurko kultura orokorrak mila hitz zabaldu ditu bazterretan, eta hitz horiek berdintsu erabiltzen dira Europako hizkuntza gehienetan” (1959: 107)

Dena den, Mendebaldeko kultura asimilatu eta euskara molde horietara egokitze-lanean, kontzeptuekin batera hitzak hartzeaz gain, hitz horiek geuk sortzeko aukera ere badugula gogorarazten digu Villasantek; alemanak dugu horren lekuko ona. Bide-gurutze horretan, ordea, Villasantek dio ez dagoela formula zehatzik ematerik noiz hartu mailegua eta noiz sortu hitz berria, senak, hizlariaren gustoak asko esan nahi du horretan. Ikusi berriak ditugun Altuberen iritziak eta Villasanterenak bide beretik doaz.

Euskara gaurkotzeko behar duguna, Villasanteren (1959) iritziz, erabiltzea da:

“Betoz batez ere gaur eguneko gora-behera eta gai praktikoak darabilzkiten liburuak, eta errebistak eta orriak, euskara bizi-bizian, egunekoan, kalekoan, hiztegi zabalaki, hitzak nondik datozen begira egon gabe” (110)

“Eta hiztegiari buruz, erderaren bidez sartzen zaizkigun hitzak hartuaz eta asimilatuaz (beharreko diranean, jakina), ez dut uste euskarari kalterik egiten zaionik, eta bai mesede, horrekin armak eta bizigarririk ematen zaizkiolako irauteko. Behar lirakeenak hartu, baina gauden euskaldun. Ez al da hori bera gure aurrekoek egin zutena, erromatarrekin har-emanetan sartu zirenean? Haien kulturako hitz eta izen asko hartu eta asimilatu zituzten, eta horri eskerrak gure mintzokak irauñ zuen bizirik. Gure maitetasun itsuak ez dezala orain euskara hiltzera eraman. Ez gara ilargian bizi, eta bai lurrean, beste herri eta hizkuntzez inguraturik, eta horiekin hartuemanik estuenetan. Euskaltasuna gorde, baina irauteko behar dena hartu: hona hemen nik zer pentsatzen dudana” (113)

Latinetik hartutako maileguen zilegitasun eta jatortasunari buruzko eztabaida amaitu (edo behintzat zeharo moteldu) zen 1959an, Euskaltzaindiak “euskal hitzei” buruzko agiria eman zuenean, “euskal hitzak dira euskera bizian sustraituak daudenak” esanez:

“Hitz baten zabaluneak, antziñatasunak eta idazle zaharrek hitz hori erabili ote duten jakiteak, asko esan nahi du hitzaren sustraia zenbaterainokoa dan neurtzeko. Sustrai haundiko hitzak, bada, euskal-hitzak dira, nahiz eta erderatik etorri. Bada gure hiztegiaren holako hitzen piloa: jatorriz kanpotik sartuak, baiña euskeran gogotik errotuak daudenak, alegia. Beraz, etxeko bihurtuak dauzkagu, gure gureak dira hitz horiek. Euskal hitzak dira bada, erderatikakoak izanarren. Hitz horiek eskubide osoz erabili ditezke, eta horien lekuan erabiltzeko asmatu diran hitz berriak ez dira gehienetan euskal-hitzak eta ez dute haiek hainbat eskubide erabiliak izateko” (215).

Gaur behin baino gehiagotan adierazpen iraultzailetzat jotzen den arren, ikusi dugu euskaltzain batzuen betiko irizpidea jasotzen zuela. Hala ere, komenigarri iritzi zion Mitxelena (1968) ideia hori azpimarratzeari, euskara batuaren sorgune eta abiaburu den Arantzazuko Biltzarrean:

“Euskaltzaindiak ezin arbuia dezake euskal-hitzik, ez hangorik ez hemengorik, ez zaharrik ez berriagorik. Nahiago ditu bizi-bizirik dirautenak zaharkituak baino; gehiago erabiltzen direnak eta zabalago hedatuak daudenak. Aberastasunari begira dago beti, garbitasunari baino areago” (212)

Gainera ez zen izan Mitxelena jokabide horren aldeko bakarra:

“Euskalherri osoan edo gehienez aspaldian sarturik dagoen hitza kendu eta beste bat sartu nahi edutea ez da pulamentuzko jokabidea, denbora eta kemenak alperrik galtzea besterik ez baita” (Zatarain 1968: 164).

Baina Mitxelena argi uzten du hizkuntza bizia beti dela hitz berrien premian. Gauza bat da hitz berririk ez sortzea lehen ditugunak baztertu eta ordezkatzeko. Besterik da, ordea, hitz berririk ez dugula behar pentsatzea:

“Hizkuntza bizia hitz berrien premian da beti: bere baitarik sortzen ditu batzuetan, besterengandik hartu besteetan. Bi bideak zilegi eta beharrezko dira eta nork taxutuko du alde zuretik bakoitzaren neurria eta mugak?” (1968: 214)

Altubek eta Villasantek aitortu duten bezala, oreka aurkitu beharraz eta euskal hitzak sortzean gure hizkuntzaren moldea gogoan izan beharraz ohar-tarazten gaitu Mitxelena.

Argi eta garbi egiazta daiteke, beraz, batasunerako, hizkuntza estandarre-rako, zer hartu behar den kontuan: euskal lexiko arruntaren ondarean tradi-zioa eta hedadura duten hitzak, euskaldun gehien aho-lumetan dabiltzanak (jatorriz mailegu izan zein ez). Eta hizkuntza gaurkotzeko ditugun beharren aurrean, mailegua har dezakegu, edo, euskal senaren arabera, hitz berria sortu. Euskaltzaindiaren sorreratik, batasunaren hasierara, hariak ez du etenik.

B) Batasunerako irizpideak

Maileguekin hartu beharreko jokabideaz gain, beste puntu jakingarri bat-zuk ere ageri dira euskaltzainen txostenetan, gaur Hiztegi Batuko lantaldeak eta Euskara Batuko batzordeak darabiltzaten irizpideekin nahikoa bat dato-zenak. Izan ere, zuzenean ala zeharka, ikusten dira gerra aurreko txostenetan zenbait irizpide, euskal hitzen artean, euskalki bateko eta besteko hitzek osa-tzen duten altxor horretan, euskara baturako, estandarerako, zein hobetsi eta zein bigarren mailan utzi, gomendatzen denean. Esate baterako:

– hedadura du gidari Azkuek (1920a) “académico” euskaraz nola esan behar zen erabakitzeke *zain* eta *zai* bikotearen artean hautatu beharra izan zuenean, *euskaltzain* formaren alde azaltzeko.

– euskaldun gehien jokabidea eta idazleen tradizioa ditu gogoan berri-ro ere (Azkue 1920b) *s / z* ahoskera/idazkera auzian (*euzkera/euskera, oste/ozte*, etab.), *euskera, oste*, etab. hobesteko.

Altuberentzat (1920a) ere hedadura da halakoetan erabakigarria. Bide beretik, tradizioari eta hedaturari begiratuaz, gerra ondoren, Txillardegik (1959) honako mailak bereizten ditu batasunerako hiztegiak:

a) Euskalki guztietan eta betidanik erabiltzen den hitza zalantzarik gabe jatorra da eta hiztegiaren sartzekoa.

b) Gaur euskalki gehienetan erabiltzen den hitza ere jatorra da. Irizpide honen arabera, *etorri* da hobestekoa eta *jin*, ez hain hedatua, bigarren mailan uztekoa.

c) Gaur toki gutxitan esan arren, garai batean hedatua zegoena hobe da hitz sortu berria baino.

Hitz batean, tradizioa beti da hobe, azken muturreko asmakizuna baino.

Baina Arantzazuko Biltzarrean egin zen saiorik sakonena hiztegia auziak aztertzeko, batasuneko gainerako gaiak bezalaxe. Han aztertu ziren ordura arte baino zehaztasun handiagoz euskalkietako lexikotik abiatuz hiztegi batua finkatzeko balia zitezkeen irizpideak. Euskalki batetik aldaerak dituzten hitzekin, edo itxura desberdineko izan arren esanahi bereko diren hitzekin batasunerako hartu beharreko jokabideaz Villasante (1968) eta Mitxelena (1968) mintzatu ziren, honako kasuistika bereiziaz:

– esanahi bera adierazi arren, itxuraz elkarrekin zer ikusirik ez duten hitzak ditugunean, biak ongi sustraituak *-abade/apaiz, lotsa/ahalke, aitzin/aurre, ezer/deus, etorri/jin, arerio/etsai/izterbegi/...*. Villasante bakarria hautatzearen aldekoa da; edo behintzat lehentasuna, tradizio idatzian erabilienari eta zabalduenari ematearen aldekoa. Mitxelenak, aldiz, beste aukera bat aipatzen du: guztiez baliatu, bakoitzaren adiera, zentzua eta esan nahia, “geure oldearen eta gogoren arabera mugatuz”. Hala ere,

“Honelako mugaketak, egia, egunerokoak dira egienez eta tratuz finkatzen diren (zati-) hizkuntza artifizialetan, hau da, jakite- eta teknika-hizkuntzetan, baina ez dira gertaera usuak hizkuntza bizi eta naturaletan. Haietan ere, eskolak eta landatu eta sendotu behar ditu” (212).

Hiztegi Batuko batzordeak (1994) literatura-tradizioa duten hitz guztiak hartzen ditu batasunerako, beharrezko denean, erabileremua (euskalkia(k)) zehaztuz. Hartara, *etorri* eta *jin*, biak sartzen dira hiztegi batuan, bigarrenari *Ipar*. marka ezarriaz.

– hitzak erro berekoak izan, eta tokitik tokira aldaerak dituztenean *-berri/barri, gezur/guzur, animalarima, beste/bertze, pekatu/bekatu...*–, zabalduena hautatu beharko litzateke. Adiera bereziren bat duenean, ordea, gorde daiteke euskalkiko forma (bizkaierazko *itzel* hitzak duen ‘bere biziko’ adiera lekuko). Gainera, Mitxelenak (1968) irizpideak ematen ditu batasunerako zein aldaera hautatu erabakitzean lagungarri gerta daitezkeenak: bazter euskalkietako aldaerak bat datozenean, indar handiagoa dute erdialdekoak baino; batez ere erdal etorkiko hitzetan, hitz-hasieran *b-*, *d-* edo *g-* dutenak hobestekoak dira herskari ahoskabedunak txit zabalduak ez daudenean, etab. Funtsean, irizpide horietan oinarritu dira azken 25 urte hauetan batasunerako egin diren aukerak, bai eta Hiztegi Batuko batzordearenak ere.

– polisemia ere gerta daiteke azkenik, hitz bera esanahi desberdinekin erabiltzea (*begiratu*, *lepo* edo *behartz* hitzen kasua, adibidez). Hemen ere erdi aldeko literaturan finkatua dagoena hartzearen alde agertzen da Villasante. Eta erdialdean batasunik ez badago, erabiliena edo literaturan jatorrena dena. Hiztegi Batuko batzordeak, ostera, adierak ematen diren neurrian (ez baitira beti ematen), literaturan tradizioa duten guztiak jasotzen ditu.

Arantzazuko Biltzarraren ondoren, Euskaltzaindiaren batasunerako lehen erabakiak, ezinbestean, morfologiakoak izan ziren. Baina tarte horretan, Mitxelenaren gerizpean, Sarasola ahalegindu zen hiztegi baturako lehen urratsak ematen, euskal lexikoa sistematizatzen. *Euskal Hiztegi Arau-emailea*-ren proiektua aurkeztu zuenean (Sarasola (1979)), argi utzi zuen euskara estandarra lortzeak, haren ondasun lexikoa sistematizatzea eskatzen duela; eta, mailak ezartzean, bere ustez, lapurtar klasikoak maila kultoagoa eratzen lagundu beharko liguke. Bestetik, sartaldeko kultura modernoa bere ñabardura eta aberastasun osoan adierazteko behar ditugun hitzak sortzeko, euskarak dituen bidez (eratorpena eta hitz-elkarketa) baliatu beharko genuke eta neologismoa sortzea ezinezko denean hartu mailegua, baina beti gogoan izanik hitz bakoitzaren barruti semantikoa ahalik zehazkien mugatu behar dela. Beraz, badirudi, Altube edo Villasante baino nabarmenago azaltzen dela euskal hitz berriak sortzearen alde, maileguak, bide hori ezinezko gertatzen denerako utziaz.

2. TERMINOLOGIA

Lexikoaren barruan, alor berezia da terminologiarena, zalantzarik gabe, bere berezitasunak eta bere eskakizunak dituena; horien artean nagusienetakoa, zehaztasunarena, unibokotasunarena, dela esango nuke. Hala aitortu dute gure gramatikariek. Maileguak hartzeko erraztasun handiena eskaintzen duena ere bada, bestalde. Eta hala ere, maileguaren eta neologismoaren (geuk sorturiko hitz berriaren) artean ibili gara azken mendeetan.

Hiztegigintzan lan erraldoia egin zuen Larramendik, esaterako, ahalegin berezia egin zuen maileguetatik ihesi, euskal ordainak emateko erdal sarrera bakoitzari⁵, baita terminologia-auzietan ere: latinetik hartutako maileguak, edo inguruko hizkuntzek latineko erroetan oinarrituz sortuak, baztertuz, Larramendik nahiago izan zuen euskal ordainak ematea; grekera eredu hartuz, eta hizkuntza horrek egin bezala, euskal erroak elkartuz *Jaincoquindea*,

⁵ Ikus Azkarate (1992)

Izarquindea edo *Ceruquindea* proposatu zituen *Teologia, Astronologia* etab.en ordez.

Euskaltzainen iritzietara etorriaz, Altubek (1920a, 1933a), lexikoaz arduratzean, ezinbestean jorratu zuen terminoen gaia. Eta benetan jakingarria da nola bereizten dituen irizpide nagusiak: hedadura, herriaren erabilera, da gidari lexiko arruntean; zehaztasuna, terminologian. Arlo honetan, ostera, Larramendi ez bezala, maileguak onartzearen aldeko ageri zaigu (Altube 1920b). Lexiko arrunterako defendatzen dituen irizpideekin zeharo koherentea da bere jarrera: benetako erabilera hartu behar dugu kontuan; inguruko hizkuntzen jokabidea ere bai. Azken batean, bizirik irauteko aukera eman behar diogu hizkuntzari, ateak itxi gabe:

“gure errijetako jostun edo *modistak* lau euskaltzaindik garbitu leikezan baiño erderatiko hitz geijago ezarten deutsee egunero gure emakumeen euskeriari.

Eta orretarikoxea da izkera-bizitziaren izate, arnasa eta aixea; eta orretariko aixetatik landaz, kanpoz, ezta bizi munduon hizkerarik.

Eta bardin gertatu da ta gertatzen da jangai, jantzigai, jolasgai eta beste gai orotako itzai buruz ere (...)

Ezteijogun guk ere geure izkera oneri bestek eureneri iminten ezteutsen eragozpenik imini; eztaiguzan geure iztegirako ateok beste izkeerenok baiño estuago, itxijago imini; ezteijoegun geure izkera onen birijai beste izkera orok aoa betez artzen daben arnasia ukatu.

Eta iztegi-aberaspide ori iñok ez bestean guk euskaldunok ¿zer dalanta ezetsi nai izan oi-dogu? Uste oker bat dogu euskaldunok iñok baiño barrurago sartuta. Geure euskera bakarti onek, erderatiko itzez jantzi ezkerok, beronen nortasuna, norberatasuna galtzen dabela uste izan oi-dogu. Eta au ezta egija; ezteuskue beintzat ori irakasten gaur-eguneko izkuntzalarajak” (29-30).

Are argiago defendatzen du maileguak hartzea, nazioartekoak direnean (1933a): Europako hizkuntza gehienen jokabidea jarraitu beharko genuke, espainolak, frantsesak, italianoak, ingelesak edo alemanak hartu dituen hitzak guk ere hartuaz, beti ere euskarara egokituz. Bestalde, lexiko arruntaren atalean ikusi dugunaren ildotik, zientzia hitzak izan daitezke alor egokia neologismoak sortzeko (“sor ditzagun hitz berriak, kontzeptu berriak izendatzeko”), edota hitz zaharkituak biziberritzeko (1936). Baina, behin eta berriz azpimarratzen du, ezin dugu ahaztu nazioartekotasunak duen garrantzia:

“Hay una cantidad considerable de palabras que casi no tienen vida más que en el cerebro de pocos hombres de ciencia de cada País; la

intercomunicación de éstos (especialmente necesaria en esos casos) se facilita extraordinariamente estableciendo una terminología común o universal, tal como se viene practicando a base, ordinariamente, de palabras o neologismos griegos y latinos" (1936: 146)

Azkenik, lexiko arruntean bezalaxe, terminologian ere, maileguak eta hitz berriak, biek izan dezakete beren lekua, esanahiak bereiziz:

Así admitidas en euskera las voces *Matematika*, *Aritmetika* (sería hasta ridículo rechazarlas por escrúpulos puristas) el neológico *Zenbakizti* podría significar "Contabilidad", *Zenbakiztilari* "Contable" o "Contador", etc. (1933a: 265, oinoharra).

Gerra ondoren, Altuberen suzia jasoko dute Txillardegik (1956) eta Villasantek (1956). Biek aitortzen dute euskara egokitu eta osatu beharra, nahitaezko zaizkion hitz berriez hornituz. Horretarako, jakina, badu aberas-tasuna euskarak (eratorpena eta hitz-elkarketa), baina ,

Asmakari eta kontzeptu berri ugari ekarri dizkigu zibilizazioak, oso hitz bereziekin batera, eta euskara "garbia" egiteko asmoa txatxukeria hutsa da, hizkuntza batek ere egin ez duena (...) Euskera garbia ez zaigu ajolik, bizia baizik. Hizkuntza bizi-tan ez dago garbikeriarik. Hain zuzen ere, erdaldunek sortu zuten euskara "garbiaren" mitoa (Txillardegi 1956: 247)

Urte berean Villasantek (1956) hiru ideia azpimarratzen ditu, oraindik ere gaur-gaurkoak ditugunak:

a) terminologiaren garrantzia (lehen-tasun osoa beharko lukeena, eskola-rako entziklopediak eta testuak euskaraz nahi baditugu):

Ba ote dugu gure euskara, gauza horiek, edozein gizonek gaur behar-beharreko dituenak, tajuz eta eraz espresatzeko egokitua? Eta ez baldin badugu, zertan ari gara euskaldunok? Ez al da hau egitekorik lehenena? Eta gauza horiek euskaraz ipintzeko, zein dugu oztopo bakarra? Lehen aipatu duguna: terminologiaren auzi hori, korapilo hori, askatu gabe edukitzea. Eta hola gauden bitartean, nahiz eta herri hitzak eta esaerak eta ipuiak jasotzen ibili, nahiz eta beste lan ederrik asko egin, euskara beti izango da ezjakinen hizkuntza. Eskola eta jakintza beti joango dira erderarekin elkartuak, eta, Kondaira lekuko, bi hizkuntza nor-gehiagoka jarri diren guztietan, jakintza eta kultura noren alde egon diren, harena izan da betiere garaipena (260)

b) terminologiaren nazioartekotasuna, beraz, maileguen bidea:

Sartaldeko herri eta hizkuntza guztietan zabaldu-rik eta onarturik dau-den hitzak, guk ezetsi nahi izan ditugu. *Técnica*, *máquina*, *política*,

religi6n: honelako hitzak nongo hizkuntzan (Okzidenteko kultur esferan bizi direnetan behintzat) ez daude hartuak, eta ez hartzeaz zer egiten dugu, gure burua hil baizik? (265)

Baina euskal ordainen bidea erabat itxi gabe:

Goragoko kulturak dakartzkian kontzeptuak, horiek guganatu behar ditugu. Kontzeptu horiek, kanpotik ekarritako hitzekin edo euskal sustraizkoekin behar ote diren adierazi, hori beste auzi bat da. Beharbada batzuetan bide bat, eta besteetan beste bat jarraitzea izango da onena (267)

c) kontsentsuaren beharra terminologia-auzietan, eta, jatorriak jatorri, onartua izan den terminoaren lehentasuna:

Agian esango du baten-batek: (...) idazleak berak asma ditzala izenok. Gero, ondotik datozenak, honi jarraituaz, betiko geldituko dira finkatuak. Bai, hala balitz; baina... Maizenik, batek asmatu izenak besteari ez zaizkio atsegin, eta hau ere hasten da beste izen berri batzuk erabiltzen bere aldetik. Eta idazle bakoitzak beste hainbeste egiten badu, nahaspila sortu besterik ez da egiten. Izenok, tresna trebeak izateko, hauxe behar dute nahi eta nahi ez, alegia, zabaldurik egotea, onartuak izatea. Hitza jatorriz ondo ala gaizki eratu izan den, horrek ez du garrantzi haundirik. Zabaldurik eta onarturik baldin badago, tresna baliotsua zait (258)

Txillardegí (1959) ere arduratu zen terminologia auziez, tradiziodunak eta berriak bereiziz. Izan ere euskaraz baditugu hitz zaharrak, baserriko tresnak, abereak, landareak, arrantzaleen gauzak, erlijioaren gora beherak, burniari buruzko xehetasun asko, errotak, eta abar, izendatzeko. Hor ez dago ezer asmatu beharrik. Ideia berriak adierazi beharra dugunean, oster, hiru bide ditugu:

a) Antzinako hitzei adiera berria eman

b) Geure baitatik hitz berria sortu, ideiak zorrozki eta zehatz azalduko dituztenak, anbiguotasunari lekurik utziko ez dioteneak. Bestela, ez du ezertarako balio hitz berria sortzeak.

c) Mailegua hartu. Txillardegiren ustez, hiruretan seguruena. Kontua da mailegua nola hartu, Leizarragaren bideari jarraitu kultura hitzak inolako aldaketarik gabe hartuaz, ala Axularrenari, kultura hitzok euskararen senaren arabera aldatuz. Bide-gurutze horretan, Txillardegí (1959) Axularren bidetik jotzearen aldeko ageri da. Eta horretarako Euskaltzaindiari eskatzen dio irizpideak eman ditzala. Horixe izan zen, hain zuzen, Hiztegitza Batzordearen lehen lana, 1980ko hamarkadako lehen urteetan burutu zuena, ondoren arau-multzoa argitaratuz 1986an.

1959an, euskal hitzei buruzko adierazpenean, aipatzen du zerbait Euskaltzaindiak, nazioarteko maileguak onartzearen alde azalduz:

Berebat, hizkuntza berezien gaiñetik zabaldurik dauden kultura eta zivilizaziozko hitzak ontzat hartzea eta erabiltzea Euskaltzaindiak begi onez ikusten du. Adibidez: politika, teknika, literatura, liturgia, metro, kilometro ta abar (215)

Lexiko arruntarekin egin bezala, adierazpenaren atal honekin, gerra aurreko eta ondorengo joera mugatu eta beste bide batzuk urratzea zilegi dela ulertzen dute euskalgintzan dabilzan lagun askok: *lutelesti*, *edesti*, *abeldi*, *zenbakizti* etab.en ondoan (edo horien ordezt) *historia*, *geografia*, *fauna*... bultzatuko dira.

Adierazpen honen eta Arantzazuko Biltzarren artean, izan zen beste biltzar bat Arantzazun, 1963an, Euskaltzaleen Biltzarra, aldeztu aurretik gai nagusitzat haxe izendatua zuena: "Euskal hiztegia eta gaur eguneko behar-rak". Bi zatitan aztertu zuten gaia: "Euskal hiztegiaren iturburuak" eta "Kultura hitzak euskaraz". Han irakurritako hitzaldien artean, bereziki aipatzekoa da L. Villasanterena (1963), "Sebero Altube iztegi arazoetan maisu", Altubek euskal hiztegiari buruz zituen iritziak jasotzen dituenena. Azken batean, Eusko Ikaskuntzak Gernikan 1922an eginiko biltzarrean Altubek irakurri zuen lanean, "Euskal Itz Barrijak. Eurok eraltzeko, erderak zetara lagun egin bear deuskuen" izenekoan, azaldu zituen iritziak jaso baino ez du egiten Villasantek; jaso eta bere egin; eta, batez ere, gerra ondorengo ahalegin haie-tan, gerra aurreko euskaltzainak aldarrikatutako irizpideak, ezezagunak izan zitezkeenak, ezagutarazi. Lexiko arruntaz Altubek hor esaten duena, gainerako lanetan azaldukoarekin bat dator (maileguak hartzea zilegi da; euskal hitzetan, erabilera eta hedadura hartu behar dira gidari, tratamendu desberdina emanaz ia euskaldun guztiek erabiltzen dituzten hitzei eta eskualde txiki batekoek bakarrik ezagutzen dituztenei). Baina terminologiaren arloan sartzen diren maileguez, urte haie-tako lanetan baino luzeago dihardu.

Lau mailatako maileguak bereizten ditu Altubek:

a) Euskal Herrian aspalditik errotuta dauden arloei dagozkienak: langintza, jolasgintza, dendaritza, etxegintza, etabar (lehen klasekoak). Ondo sus-traituta dauden hitzak jasotzea baino ez dugu horrelakoetan; ez dago hitz berri-rik asmatzen ibili beharrik.

b) kontzeptu eta gauza berriei dagozkien arren, herriak ezagutu eta egu-neroko jardunean erabiltzen dituenak (bigarren klasekoak)

Erabilera denez oinarri, askotan gertatuko zaigu kontzeptu berriarekin batera mailegua ere sartzea eta finkatzea; eta maileguak hedatzen direnean, alferrik da horien ordezt hitz garbiak sortzeko ahalegina:

“*Bigarren Klasetako hizkera berarizkoak*. Atzerritik orain agertzen zaizkigun makina, erremintta, jostailu, soieko eta komertziozako nahiz hartaz kanpoko beste tresna eta arazo guztiei dagozkionak.

Gauza hauek mundu guztiko hizkeretan egon ohi dira erderatiko ize-
nez jositakoak, eta ez dago horren kontra inundi inora ezer egiterik. Atzerritar gauza horiek herritik herrira igaro ohi dira eta bakoitza bere jatorri herritik dakarren izenaz izendatu ohi da. Azkenengo bitarteko edo dendariak izan horretxekin hartu eta horrelaxe ezagutu arazi eta saldu ere egiten dituzte gauzok. Gauza ezagutzen dijoan neurri berean, jatorritiko arrotz izena ere zabaltzen eta sustraitzen doa herririk herri; eta hitzok behin sustraituz gero, joan zen garbiak jartzeko era eta ordua. Beharbada hizkelzain eta idazle garbizaleak dira, sarri horrelako gauza berri eta beren arrotz izenak ezagutzera beranduen heltzen direnak. Ameskeria barregarria litzateke, berriz, atzerri-hitzok sustrai ez daitetzen, harako muga-ate edo aduana antzeko gauza bat imini nahi izatea. Haizeari ateak imintzea bezalatsu” (Villasante 1963:306).

c) goi-jakintzakoak (hirugarren klasekoak). Hauetan du hutsunerik handiena euskarak. Gainera, maila honetako terminoak arlo horretako mundu osoko espezialistek erabiltzen dituztenez, nahiko “batuak” egoten dira. Garai batean, latina nagusi zenean, hizkuntza horrek ematen zuen batasuna. Gero, latin eta grekoko sustraiekin eraturiko hiztegia nagusitu da jakintza-arlo askotan eta horiek dira Europako hizkuntzek hartu dituztenak. Horrela jokatu du ingelesak ere, nahiz bideak izan bere baliabideetatik hitz berriak sortzeko:

“Europa alderdi onetan euskaldunok geu bakarrik batasun horretatik kanpora gelditzea, eztirudi zentzunezko ta onuratsu litzakigunik. Bestetara egin bear geunkeala deritxogu: geuretzakotu guk ere, jakintza-hiztegi-jori, hitzai euskera-antzaemoteko gorago aittatu dittugun aldakuntza-legeak bear danean ezarririk”⁶.

Alde honetatik, bai Altube eta bai Villasante, ingelesaren bidea eredu hartzearen aldeko ageri dira, eta ez alemanarena, latin eta greko-sustraiko hitzak zeharo baztertu gabe, askotan jakintza-hitzak bere baliabideetatik sortzen dituen hizkuntzarena, alegia. Lau arrazoi ematen ditu Altubek bere aukeraren zergatia azaltzeko: euskaldunok gutxi gara; oso zaila, ezinezkoa izango zaigu, jakintzak asmatzen dituen gauza berri guztiei “euskal izena” jartzea; inguruan,

⁶ S. Altube (1922): “Euskal Itz Barrijak” (L. Villasanteren lanetik hartua, 1963: 308)

bestela jokatzeko duten hizkuntzak ditugu; eta, azkenik, bakar bide horrekin jakintza-lana asko zailtzen da. Funtsean, batasunerako Krutwigek defendatu duena aldarrikatzen zuen Altubek ere gerra aurretik.

d) Literatura-hizkera (artikulu honetan alboan utziko duguna).

Esan bezala, Altuberen 1922ko artikulua azalpen xehe eta luzea egin ondoren, bere egiten ditu Villasantek (1963) lan horretako iritziak:

“Puntuon irakurri ditugun orri hauek ia hitzez hitz aldatuak daude Altube jaunak Gernika-ko batzarrean egindako hitzalditik. Ez dira, bada, erakutsiok oraingoak. Orain dela berrogei urte han Gernikan emanak baizik. Baina beren gaurkotasun oso-osoak gordetzen dute. Nik esango nuke orduak baino gaurkoak diruditela gehiago. Buru hotz eta argiz, jakintzak eman ohi duen zentzu eta neurriaz, zeinen tajuz eta egoki ikusi duen euskarari dagokion jokabide zuzena! Euskarari sustraiturik eta osasun sendoz bizi diren hitz guztiak, bakean utzi, erderatikoak izan ez izan. Hau baita hizkuntza denetan gordetzen den lege edo neurria. Beraz guztiz da zilegi hitzok geure idazkietan erabiltzea, geure-geureak ditugulako, etxeko bihurtuak (...) Euskarari sustraituta eta osasun sendoz eta zabaldu handiz bizi diren erderatiko hitzak, euskal hitzak dira, besteak bezalaxe, eta guztiz da zilegi horiek gure hiztegian sartzea eta euskaraz erabiltzea” (310)

Villasantek gain, Oskillaso (1963) ere iritzi berekoa da, eta latin eta greko-ko erroez osatutako kultura-hitzak geureganatzeko ematen dituen arazoak Altubek bere garaian aipatzen zituenak berak direla esan daiteke:

“Ehun milatik gora dira hizkuntz jakitun guztien kultur hitzak eta urtero jaiotzen dira ehundik gora guttienez. Ezin dugu guk egin besterik, sortzen diren bezala geureganatzea baino, iturrira joan eta ezertarako aldakuntzarik sartu gabe, denok berdinean egiten ditugunak baizik (...) Batzuetan alemanek euren hizkuntzako sustraiekin egindako hitz batekin esaten dute besteek latinetik hartzen dutena (...) Baina batzuetan alemanek hau egiten badute, eragozpen bat baino ez da, asko komeni baita hitz jakitun guztiak mundu guztian berdinak izatea... Kontuz garbizaleok, alemanak handiak dira jakintza arazoetan eta euren barkatzen zainea ez litzaiguke barkatuko guri ta. Gainera euren ere ezin dute egin hau beti, eta beti ez egiteko, hobe ez egitea inoiz” (384-5).

Orain arte nazioarteko maileguak hartzearen aldeko iritziak ikusi ditugun arren, bestelakoak ere, Larramendiren jokabidea hobesten zutenak, ez ziren falta. Urte haietan hiztegi-kontuetan nolako jokabidea zen zuzena, garbizalea ala maileguei atea zabalik uzten ziena, beste foro batzuetan ere ezta-

baidatu zen urte horietan, 50 hamarkadan eta 60ko hamarkadaren hasieran. Foro horietako bat *Jakin* aldizkaria izan zen⁷.

Eta, nola ez, erdibideko jarreraren aldeko ahotsak ere entzun ziren: nazioartekoa den hitz berezitu edo terminoaren ondoan, euskal hitza sortzen den kasuetan, bestearen ondoan ipini eta gorde beharko genukeela defendatzen duen iritzia, adibidez (Barandiaran 1963):

“beste herrietan erabiltzen diren neurrian, grekeratik jasota ta abar, ez litzateke zer esanik euskaraz ere erabili behar genituzkeela. Baina euskal hitzak ere jatorki asmatuko balira, horiek ere hiztegiak batera ekarri behar litzuzke” (374).

Hau da, alemanak *telephon* eta *fernsehapparat* hartzen dituen bezalaxe, batean grekera errotik sortua eta bestean alemanaren arabera sortua, euskaraz ere kasu bakoitzerako hitz egokia aukeratu beharko genuke, eta euskarak ere atak zabalik izan beharko litzuzke bere erregelen aberastasunaz baliatuz hitz berriak sortzeko. Alemanaren bidea egokia da, beraz, Barandiantzat.

Arantzazuko 1963ko bileran, beste puntu garrantzitsu batzuk ere planteatu ziren, aurreko urteetan ere autore batek edo bestek plazaratuak zituenak, eta gaurkotasun osoa dutenak, oraindik ere hor aipatzen diren beharrak zeharo ase ezinik gabiltza eta:

1. Neologismoak sortzea, funtsezko gertatzen dena, hitz berri bakoitzari esanahi jakina ematea, eta beti esanahi horrekin erabiltzea (Azurmendi 1963: 361-2). Altubek lehenik eta Txillardegik ondoren planteatua berrestea baino ez da, bestalde.

2. Jakintza-arlo bakoitzeko terminologia batzea ezinbestekoa da, eta horretarako, aldi berean, nahitaezkoa da lehendik argitaratuta dauden liburu, hiztegi eta testuliburuetakoko hitz berezien bilduma egitea (Urrestarazu (1963). Horrela jakingo genuke zer dabilen, eta hortik abiatuta egin litezke batasuneko proposamenak

“Horrela, iritzi guztiak bilduta izango genituzke ... idazle eta irakasleentzat iturburu bat bezala izan dadin. Lan guzti hori bildu eta zuzenduko lukeen bazkunak, bilduma guztietatik bat esondatu lezake batasunerako bidea emateko xedeaz; hala ere idazke eta irakasleak izango lirareteke bati, beren iritziaz, bilduma horietatik hitz batzuk ala bes-

⁷ Ikus honetaz J. Azurmendi (1963): “*Jakin*: euskal kulturaren bideak lantzen” *Euskera* VIII-IX, 336-371

teak aukeratzeko jarei. Baina, berriz dagokigu esatea, beharrezkoa deritzagu iritzi guztiak bildurik eukitzea, orentzat ezagunak izan daitezen” (405).

Terminologia auzian, hurrengo mugarria, jakina, 1968ko Biltzarra izan zen. Eta han, orain arte ikusi ditugun autoreek ez bezala, Zatarainek (1968), ahal den guztietan euskal hitza sortu beharko genukeela aldarrikatu zuen, “nazioartekotasuna” askotan uste baino hedadura txikiagokoa izaten baita, behin baino gehiagotan, gaztelaniaz eta frantsesez besterik ez dakiten batzuen irudipena besterik ez. Dioena hala dela erakusteko, frantsesa, italiara, ingelesa, alemana, gaztelania, daniera eta suediera hartzen ditu eta terminozerranda bat hizkuntza bakoitzean nola den aztertzen du. Gainera badira hizkuntzak, alemana eta daniera, esaterako, grekerazko terminoa, eta berek sortua, biak erabiltzen dituztenak. Gakoa, frantsesa, ingelesa eta gaztelera baino haratago begiratzean datza; hor frogatuko dugu termino jakin bat benetan nazioartekoa den ala ez. Ez da zalantzarik oraindik ere ebatzi gabe dugun auzia plazaratzen duela hemen Zatarainek.

Mitxelenaren ardura (1968), ostera, bestelakoa da: maileguak nahitaez-kotzat dituenaz, erabaki beharrezkoa hauze da, zein itxuratan hartu behar ditugu maileguak:

“Kultura-gaietan hartzaile –bestearen zordun, beraz– geranez gero, bidezko da, noski, hiztegian ere hartzaile eta zordun agertzea (...)

Bestetariko hitzak lehen hartu ditugu, eta ez dago beste biderik aurre-
ra ere. Hitz horien itxuraz, ordez, bi iritzi dabilta gure artean: itxura hori, etorkizkoa alegia, gorde nahi lukete batzuek egin-ahalean, frantsesaren arabera edo, eta itxura aldatzea, xinpletzea, gogokoago dute besteek, gaztelaniaren arabera.

Nik, egia esan, lehen bidea hartuko nuke arras ikasientzat ari bagina, baina ez da hori gertatzen. Xinpletasunera joko nuke areago, edo bide-erdira behintzat, *y*, *kh*, *th* eta gisa horretako idazkerak baztertuaz (215)

Baina beste bidea, hitzak bere horretan gordetzearena, defendatu dutenak ere izan dira Euskaltzaindian. Horien artean, Krutwig hasieratik azaldu da kultura hitzak jatorrizko idazkeran ematearen alde⁸. Euskara Batuak bere bidea egin ondoren, eta Euskaltzaindia maileguak nola egokitu aztertzen ari

⁸ Ikus Euskaltzaindiaren batzar-agiriak 1949-1964, *Euskera* 1937-1953, bereziki 1951.IV.29koa.

zela, hasierako jarrera berretsi zuen 1982an, erraztasunarengatik, kultura-hitzak, ingelesez, frantsesez edo alemanez duten ortografian hartzearen aldeko da. Beraz, Krutwigen iritziz, euskaraz kultura hitzak beren jatorrizko forman idatzi beharko genituzke, nazioartekoena horixe izaten da eta.

3. TERMINOLOGIAGILEAK

Terminologiaren gaia amaitutzat eman aurretik, ezinbesteko deritzat beste puntu bat aipatzeari: terminologiagintza nori dagokion, hobeto esan, horretaz zer iritzi izan duten euskaltzainek. Izan ere, beste hizkuntza batzuetan eztabaidatu den gaia da, gurean oraindik ere neurri batean eztabaidagai duguna, eta Euskaltzaindian behin baino gehiagotan aztertu dena.

Funtsean galdera hauxe da: euskaltzainek bere gain hartu behar dute terminologiagintza, ala jakintza-alor bakoitzeko adituei utzi behar die lan hori?⁹ Eta galdera honi, batzuek modu bateko erantzuna eman diote –Euskaltzaindiak jardun behar du terminologia-lanetan–, eta beste batzuek bestelakoa –Euskaltzaindiari ez dagokio terminoak sortu eta proposatzea–. Berez, hasieratik ageri dira Euskaltzaindiko bilera-aktetan terminoei buruzko erabakiak (Zalbide 1991): 1922ko apirilaren 27an erabaki zen erderazko *gono* esateko, euskaraz *ertz* erabili behar zela, eta *egal*, berriz, erdal *edro*-ren orde. Baina laster ageri dira iritzi kontrajarriak; 1930eko *Euskeran* (XI,1:49) jasotzen den eskariaren aurrean (euskal idazleek Euskaltzaindiari eskatzen diote maileguen ordain txukunak sor ditzala), eta Azkueren proposamena ikusirik (horretarako batzorde bat sortu eta lanean has dadila), euskaltzain gehienek ondo irizten dioten arren, Urkijo eta Lakonbe kontra agertu ziren. Bi euskaltzain hauen ustez, Euskaltzaindiak ez du izan behar hitz berrien sortzaile, idazleek eta herriak sotu behar dituzte hitz berriak, eta piztuarazi.

Iritzi desberdintasun hori eten gabe ageri da gerra ondoren ere: nahitaezko diren hitz berezituak, terminoak, sortzeko eskariak batetik, eta lan hori besteri dagokiola uste duten euskaltzainen adierazpenak bestetik.

Lehen taldean sartzen dira Andoni Urrestarazu (1955) Gramatika bat euskaraz egin ahal izateko edozein gramatikarik behar duen terminologia gomenda zezala eskatuz Euskaltzaindiari. Edo Agirretxe (1963), hiztegi osoa lehenbailehen osa dezala eskaria eginez:

⁹ Auzi honetaz ikus Zalbide (1991)

“Horregatik euskal hizlari guztien izenean nik Euskaltzaindiari eskari hauxe egiten diot: lehenbailehen izan dezagula gaurko kulturagai guztia euskeraz esaten lagunduko digun hiztegi bat. Lehendabizitik hiztegi osoa izango ez bada ere, beharrezkoen eta gaurkoen diren kontzeptuak esaten lagunduko digun hiztegi bat.

Eta jakina, nire iritziz, horretarako euskaraz kanpotik hitz pila izugarria hartu beharra dago. Baina ze hitz hartu, nola hartu eta nola hitz horietako bakoitzari euskaratasun egokia eman jakiteko, maixuak behar ditugu eta maixu horiek Euskaltzaindiak izango ahal ditu; lan honi benetan eta lehenbailehen erantzungo diotenak, alegia” (449)

Bigarren sailekoen artean, Villasantek (1956) argi asko adierazten du auzia zertan den, luze samarra izan arren, osorik aipatu nahi dudan pasarte honetan:

Lehen ere izan zen eztabaida Euskaltzaindiak hitz berrien sortzaile izan behar duen ala ez, eta ezetzaren alde zeudenak uste dut gelditu zirela gailen (*Euskerak* 1930, 49 orr.). Hauen aburuz, idazleek behar dute bidea urratu. Gaiak euskaraz erabiliz sortuko du batek hitz aukerako bat, beste batek beste bat, eta hala, poliki-poliki, sortutako hitzaren balioak eta egokitasunak egingo du berau zabaldu eta finkatu dadin. Eta Euskaltzaindiak orduan, eta ez lehenago, hau da, zabaldurik eta onarturik daudenean, hitzok bere egingo ditu, eta hizkuntzan sartuko. Bide ziurra eta zuhurra, noski, baino luzea, luzeegia behar bada. Behintzat orainarte idazle gutxi azaldu zaigu, bidea urratu nahi duenik. Eta halaxe gaude: idazleak Euskaltzaindiaren zain, eta Euskaltzaindia idazleei begira

Urrestrarazuk berak ere urte batzuk lehenagoko jarrera aldatuz, (1963: 405), idazle eta irakasleak hartzen ditu terminologia-kontuetan erabakitzaile.

Beste batzuek, Euskaltzaindiari erdibideko zerbait eskatzen diote: inork sortutako hitz berezituaren aurrean, epaile lana egin dezala, nolabait. Horrela, Mendigurenek (1976), irakaskuntzako liburuetan lexiko auzietan nolako desberdintasunak dauden ikusirik, eskari bat egiten dio Euskaltzaindiari: azken aldiko liburu guztiak aztertu, desberdintasunen zerrenda bat eratu, eta ondo aztertu ondoren, forma egokienak proposa eta gomenda ditzala, liburugintzan diharduten talde desberdinen eskuetan ipiniaz proposamenok.

Hurrengo urtean, (Mendiguren (1977)), hitz berriak sortzea guztion zeregina dela aitorturik ere, Euskaltzaindiaren eginkizuntzat ditu ondorengo hauek:

a) testugintzan ari direnekin, argitaletxeekin, etab. harremanetan jarri eta terminologia bilketa eredu bat proposatu.

b) Ordurarteko neologismo eta terminologiaren biltze sistematiko bat egin ondoren, galbahetu eta forma egokienen edo gomendagarrien proposamena egin. Agian horretarako hizkuntzalariz eta zientzia alor desberdinetako jende adituz osoturiko kontseiluren bat eratuaz.

c) Gomendatzen duen hitz zerrenda testuinguru egokitan eta oharrez horniturik argitaratu.

Euskaltzaindiak berak ere bitariko jarrera darama urte horietan. Villasantek (1977), Euskaltzaindiaren hurrengo bi urteetako eginkizunak aztertzean, argi eta garbi adierazten du Euskaltzaindiak ezin duela berak bakarrik Hiztegi Espezializatuen itsaso zabala inguratu. "Bestelako taldeen lana bultzatu behar du, eta, ahal den neurrian, denen artean koordinazio, batasun eta bat-etortzea bilatu" (231). Hala ere, Etxegintza batzordea, lanean ari zen, arkitekto, ingeniari eta apareilariz osatua, bai eta Matematika batzordea ere.

Jarrera askoz argiago ageri da 80 hamarkadan. Euskaltzaindiak 1981eko abenduaren 29an, Hiztegitagintzaz eginiko adierazpenean, Hiztegi orokorra eta Hiritartua bere gain hartzen dituen bitartean, Hiztegi Espezializatuak ez direla zuzenean Euskaltzaindiaren lana aitortzen du, "beste edozein hizkuntzatan ere ez den bezala, hiztegi espezializatuen sortzea eta banan banako azterketa egitea, hizkuntzari eta euskararen egiturari dagozkion funtsezko puntuak zaintzea izan ezik".

Handik sei urtera jarrera bera azaldu zuen Euskaltzaindiak 1987an. Euskararen gaurkotze eta modernizazio-lana oro har, eta bere hitz-althorraren berritzea bereziki, bete-betean sartzen dira Euskaltzaindiaren lan-esparruan. Euskaldun jendeak lexiko-berrikuntzaren alorrean bizi duen gidaritza eta bateragunearen premiaren jabe eginez, Euskaltzaindiak bere aholku-emaile lana beteaz, gidaritza eta bateratze-beharrari erantzuteko borondatea agertu zuen. Horretarako, eta arau zehatzak eman aurretik, euskaldunen aholkumetan zer zebilen jakiteari nahitaezko iritzirik, bilketa-lanari eman zitzaion erabateko lehentasuna. *Eguno Euskararen Bilketa-lan Sistematikoa* programa jarri zen martxan helburu horiek betetzeko: egungo prosa arrunteko hitz-althorra, eta jakintzagai eta bizigune desberdinetan erabili edo erabiltzen dena biltzea helburu duena, alegia. Beraz, terminologia-auzietan Euskaltzaindiak ez du ezer sortzen; bestek sortua bildu, eta gero iritzia eman-go luke.

Azkenik, Zalbideren (1991) gogoeta ekarri nahi dut lerro hauetara, *Eguno Euskararen Bilketa-lan Sistematikoa* Euskaltzaindiaren lan-programa bezala, amaitutzat eman ondoren, hurrengo pausoak bideratzeko Laurgainen eratu ziren jardunaldietan esanak: "Nolako bizkarrezurra eman nahi dio Euskaltzaindiak, hurrengo bost urteotan, euskal hitz-althorraren berrikuntza-lanari. Non ezarri nahi ditu ekintza-lehentasunak, eta zer moduko

lankidetza-bideak eratu nahi ditu modernizazio-lan honetan ari diren etxeekin" (1098).

Horixe da gaur ere eztabaidatzen duguna. Oraindik ere elkarren berri izatea, koordinazioa, kontsentsua, beharrezkoak ditugu, eta batez ere, lexiko arrunterako eztabaidatu ditugun irizpideen antzekoak ditugu finkatzeko (noiz hartuko dugun nazioartekotzat termino jakin bat eta, ondorioz, mailegua onartu; noiz joko dugun euskal hitza sortzera...); bide luzea dugu oraindik egiteko. Baina bidea egunero-egunero urratuz, datozen galdera eta zalantzei ahal dugun egokien erantzuten saiatuz, azken urteetan sortu diren lantaldeetan egonaz, euskararen terminologia beharrak guztion artean osatuz goaz.

AIPAMENAK

- AGIRRETXE A. (1963): "Gaurko izlariak eta euskera" *Euskera* VIII-IX, 443-449
- ALTUBE S. (1920a): "Erderatiko-itzak, itz-barijak eta aintxiña-itzak" *Euskera* 1919-1920, 44-54
- (1920b): "Euskaltzain berriak, bere sarrerako egunean, Bilbo'n lotazilaren 28an irakurritako lana" *Euskera* 1920-1921, II, 1, 3-49
- (1933a): "La Vida del Euskera" *Euskera* XIV-IV, 299-397
- (1933b): "Euskaltzaindiari" *Euskera* XIV-III, 263-265
- (1936): *Más sobre la Vida del Euskera. Barriro Euskeraren Bizitzari buruz*. *Euskera* XVII, 1-4, 1-192
- ALVAREZ ENPARANZA J.L. ik. Txillardegui
- AZKARATE M. (1992): "Larramendiren hitz-eraketa" *Manuel Larramendi. Hirugarren Mendeurrena*, (arg. J.A. Lakarra). Andoain. 207-219.
- AZKUE R.M. (1905-1906): *Diccionario vasco-español-francés* (1969. Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca)
- (1920a): "Euskaltzainen iker-azterpenak" *Euskera* 1919-1920, 3-11
- (1920b): "Euzkera ala Euskera?" *Euskera* 1919-1920, 14-19
- (1920c): "Erderatiko itzak, itz sorberiak eta beinolako itzak" *Euskera* 1919-1920, 54-62
- AZURMENDI J. (1963): "Jakin: euskal kulturaren bideak lantzen" *Euskera* VIII-IX, 336-371
- BARANDIARAN G. (1963): "Euskera'ren iztegia, nola litzaken" *Euskera* VIII-IX, 372-378

- EUSKALTZAINDIA (1959): "Euskaltzaindiaren agiria euskal itzei buruz" *EUSKERA* IV: 214-215
 (1982): Euskaltzaindiaren adierazpenak. Hiztegitantzaz" *Euskera* XXVII,2: 271
 (1987): "Lexiko-berrikuntza eta bilketa-bana nola bidera" *Euskera* XXXII,2: 343-348
- HIZTEGI BATUKO BATZORDEA (1994): "Hiztegi Batua osatzeko irizpideak" *Euskera* 39,2: 1093-1110
- KRUTWIG F. (1982): "Kultur hitzen orthographia euskaraz" *Euskera* XXVII,2: 665-668
- MENDIGUREN X. (1976): "Irakaskintza liburuetakoko euskeraren desberdintasunak" *Euskera* XXI, 2: 210-213
 (1977): "Euskarazko neologismo eta terminologiaren inguruan" *Euskera* XXII,2: 97-99
- MITXELENA L. (1968): "Ortografia" *Euskera* XIII: 203-219
- OSKILLASO (1963): "Batasunerako urhatsak, euskal-analfabetismua ta kultur-hiztegia" *Euskera* VIII-IX, 378-385
- SARASOLA I. (1977): "Euskal hiztegi arauemaile entziklopedikoaren proiektua" *Euskera* XXII,2: 125-138
- TXILLARDEGI (1956): "Karta Idigia" *Euskera* 1956, I: 245-250
 (1959): "Batasunaren bidea" *Euskera* IV: 150-170
- URRESTARAZU A. (1963): "Euskeraren aldeko lan orokar baten egitaraua" *Euskera* VIII-IX, 401-408
- VILLASANTE L. (1956): "Gure eginbearrak" *Euskera* 1956, I: 257-268
 (1959): "Bizitzatik urbil" *Euskera* IV: 101-113
 (1963): "Sebero Altube iztegi arazoeta maisu" *Euskera* VIII-IX, 293-313
 (1968): "Antziñako euskal hitzen formaz" *Euskera* XIII: 175-201
 (1977): "Urtebikoaren plangintza (egoera - lanak - asmoak - helburuak)" *Euskera* XXII,2: 222-242
- ZALBIDE M. (1991): "Euskaltzaindia euskal hitz-altxorraren berrikuntza-lanean: eginkizuna eta jardupidea" *Euskera* XXXVI,2: 1097-1113
- ZATARAIN, A. (1968): "Euskerazko itz berriak" *Euskera* XIII: 163-173